

## Maria Riverok *Parentesiak* diskoa atera dau

Zeberion bizi dan musikariaren hamabigarren diskoa da *Parentesiak*, bakarkako bere lehenengo disko luzea. Apurka eta Siroka taldeakaz eta Hutsa bikote akustikoagaz atera ebazan aurreko lanak.

Disko barriak bere ibilbidea apur bat gehiago ulertuteko eta esentziara hurreratzeko balio ahal izango dauala uste dau egileak. Plataforma digitaletan entzun daiteke, eta [www.mariarivero.eus](http://www.mariarivero.eus) webgunearen bidez erosi daiteke diskoa. **12. orrialdea**



## Aitzol Atutxa dimoztar azkolari txapeldunari alkarrizketea

10. orrialdea

# Bisiten zain dagoz zahar etxeetan

Arratia eta Zeberioko zaharren egoitzetan ez da COVID-19ak jotako gaixorik egon aprilaren amaierara arte.



COVID-19ak gogor jotzen dituala zahar etxeak dinoe adituak. Bediako Jandoniz egoitza pribaduan, Dimako Arratia HE eta Piedadeondo egoitzetan eta Zeberioko Arbildun ez dala koronabirusa sartu esan deusie BEGITURI egoitza horreetako zuzendariak. Galdeketea, aprilaren 17a eta 24an bitartean egin zan.

Neurri zorrotzak hartu ditue eta Piedadeondon aldi baten langileak, egoitzan bertan geratu ziran

birusa kanpotik ez sartzeako. Guztietan, higie eta desinfekzino neurri zorrotzak hartu ditue eta behar izan ezker bakartzeko guneak prestatu ditue.

Itxialdiak zahar etxeetako egunerokotasuna aldatu dau eta egoiliarrek ezin izan dabe bisitarik izan. Horixe izan dala gogorrena dinoe. Bideodeiak eta bideokonferentziak egin arren, maite dituenen bisitak ezinbestekoak dituela osasunerako. Itxialdia arintze-agaz batera hasiko dira barriro bisitak. **8. orrialdea**



Argazkia: Oriol Fernández.

## "Normalidade" barrirantzako prozesua hasi da

Aprilaren 28an, Espainiako go-bemuko presidentek, Pedro Sanchez-ek, azaldu eban zelan izango dan itxialdia itxeko eta "normalidade barrira" helduteko prozesua. Lau fase izango ditu eta bagilera arte edo garagarriaren erdikaldera arte iraungo dau. Prozesua "asimetrikoa" izango da eta fase batetik bestera pasau ahal izateko probintzia izango da erreferentzia. **9. orrialdea**

### ARRATIA

## Janaria ordaintzeko lain be ez daukieneen kopurua hazi egin da

Alarma egoerea ezarri zanetik, jente askok lana galdu dau, batez be os-talariak eta kontratu bakoak. Bizkaiko Elikagaien Bankuak ez dau euki jateko nahikorik eskatzaileen preminak beteteko eta Arratiako Gurutze Gorriak udaletara deitu eta aprilaren amaieran, dendetan jatekoa batze-ari ekin eutsan. 3.100 kilo batu ziran eta preminan dagozan Arratiako 89 familiarentzako loteak banandu ahal izan ebezan ondoren. **5. orrialdea**



### ARRATIA

## Itxialdian etxea arriskutsuago indarkeria matxistearen biktimentzat

Arratiako Udalen Mankomunidadea heldutako kasuen kopuruan aldaketarik nabarmentzen ez dan arren, konfinamentuak biolentzia sufriduten daben andra eta umeen egoerea latzago egiten dauala uste dau Oihane Zulet AUMko Bardintasun Teknikariak. Etxetik urten ezinda, arrisku faktoreak handitu egiten dira. **7. orrialdea**

Gugaz harremanetan ipinteko 94 631 73 14 eta 649 979 112

Publizidadea: 649 979 115

begitu



[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)



[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

# Literatura txokoa

## URTAROAK ETA ZEINUAK

Azken aldiko onena. Edertasunaren ekologia ez da beti kanonik agintzen dabena egitea. Edertasunaren ekologia suertedun idazleek praktiketan dabe. Askatasunagaz dauka zerikusia idazkera miragarri horrek, Jon Gerediaga lakoak ezetuten dabena. *Urtaroak eta zeinuak* errepikakorra da okilaren kantua lez, beti bat, kiri-kiño latzaren bidea lez. Eta esan leike nonork, hara ze errutina! Baina harrigarriena da insistentzia horretan egiten dauala aurrera diskurso poetikoak, eta urri bigarreneko zeruen antzera dirala poema guztiak beti bat, baina beti desbardin: "Ikusiko ditut berriz,/behin eta berriz berdatuko dira".

Bedarraren gorazarrea, frutarbo-

letako loreena, sagarrarena. Hemen natura ez da personifikatua, ez da erromantikoak asmatua, ez da eszenalekua, ez da *locus amoenus*. Ez da inkontzientean konkisteagaz lotu dogun gailur altuko natura zabala be —Gary Snyder, Juanra Madariaga—, Euskal Herriko inguru suntsitu honetan harriaren gainean konturatu be egin barik hazten dan odoldiari buruzko liburua da, edo pinudien histori familiar bat, edo adar urdinen artetik erdi-ikusten dan izar gozoa.

Aurrera eta aurrera doaz poemak eta egoera barrietara eginez bizi dira. Jon Gerediagak badaki itxaroten, zutzer meheak botaten ditu irakurlearen zerebroan. Ekin eta ekin idea berberari —iraun,

moldatu—, eta halanda be hau ez da liburu monotono bat. Hau da liburu derrigorrezko bat azken urteotako liburutegian. Itxuraz ezer esan barik dana esateko gaitasuna daukan idazle bakanetako batek poesiaren zelaian bildutako basa-laborea.

**Igor Estankona**

**Jon Gerediaga**

**Urtaroak eta zeinuak**

**Pamiela, 2019**

**80 orrialde**



### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**  
**Maiatzaren 4tik 10era**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

### 22:00etatik 09:00etara

Cutierrez. Amorebieta-Etxano.

### Maiatzaren 11tik 17ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

### 22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

### Maiatzaren 18tik 24ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

### 22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

### Urte osoan

### 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles. Urbi 15. Basauri.

### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

### Parketxea

94 673 92 79

### Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

### Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

### Euskotren

94 433 33 33

### Areatzako Notarioratza

94 673 92 26

### Bizkaibus 94 612 55 55

#### Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

#### Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

#### Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

#### Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

#### Zeanuri-Lemoa-Bilbo

##### (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Bilbo-Lemoa-Zeanuri

##### (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

#### Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

#### Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

#### Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

#### La Union 94 427 11 11

##### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

##### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Maketazino:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidadea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.



### Babesleak:



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Bialdu



Baten batek nonora edo beste bateri zeozer (gauza edo personea bera izan lei) agindutako ekintzari bialdu esaten deusagu (bialdu, ahoskatuta). Batuan, bidali esaten da. Komunikazioa lortutako abisuak bialduten deusaguz alkarrerri: hizkuntzak, karta-jokoan keinuak, mezu elektronikoa... Hona hemen argazkiagaz lotutako adibidea: "-Bazkaiten be mezuak bialduten mobikorretik? -Egon nasai, e!".

## ERETXIA

### Krisiari aurre eginaz euskeratik

Egoera latza bizi dogu. Gaitzak eragindako kalteak handiak dira, konponezinak horreetako batzuk. Horregaitik, gure lehen pentsamentua sentitartekoren bat galdu dabengana eta gaitza sufriduten dabilzenengana doa. Gure alkartasun guztia zuentzat.

Ziurbakotasunak eta kezak bizi gaitue. Baina baita itxaropenak eta etorkizunaren alde lanean tinko jarraituteko gogoak be. Halaxe gabiz Euskaltzaleen Topagunea osotuten dogun persona eta alkarte guztiak. Etxetik, baina gure ardurapeko egitasmoak eta hedabideak geratu edo galdu ez daitezcan saiatzen, eta sortzean diran arazoai ahalik eta urtenbiderik egokienak topau guran. Zenbait kasutan, baita oztupoak aukera bihurtzeko zirrikituak bilatzen be.

Osasun krisiaren ondoren, krisi ekonomikoa etorriko dala ziurtat emoten da, eta, horregaz batera, herritarren jarkeretan eta politika publikoetan norabide aldaketak egon daitekezala gabiz irakurten edo entzuten batean eta bestean.

Gure ustez, euskal gizarteak funtsezko balio sozialak oinarri dituala atera behar dau aurrera krisitik, esaterako, alkartasuna, bardintasuna, zaintza, gertutasuna eta komunitate zentzua. Eta balio horreekaz bat eginaz, euskerearen bizibarritze prozesuak be aurrera egin behar dau, egoera barrira egokituta. Euskerak komunitatea indartuteko eta balio horreek sustatzeko aukera parebakoa emoten deusku.

Bide hori, baina, une honetatik bertatik jorratu behar da, larrialdi egoera honetan be, funtsezkoa dalarik herritarren hizkuntz eskubideak babestea eta bermatzea.

Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok adierazo eban legez, pozez hartu dogu Europako Kontseiluak, itxialdia hasi zanean,



### KIKE AMONARRIZ ETA JASONE MENDIZABAL

Euskaltzaleen Topaguneako lehendakaria eta zuzendaria

hainbat estatu europarretan zabalduetako ezohiko mezua: pandemiaren inguruan sortutako informazioa tokiko hizkuntzetan be heldu arazo behar zala gogora arazo eban, hizkuntza horreetako hitzunen ongizatea bermatzeko.

Osasun erakundeak eta bertako profesionalak, egoerarik zaugarrienean dagozan herritarrai gertutasunez eta maitasunez eskaintzen jakien zerbitzua egokiena izan daiten egindako ahalegin ikaragarria azpimarratu gura dogu, lehenik eta behin. Eta, horregaz batera, gaixoak euren hizkuntzetan artatuak izateak daukan balioaz jabetu arazo gura geunkez, barriro be.

Osasun krisi garai honetan, euskerearentzat irabazitako espazioak eta funtzioak baliatzea ezinbestekotzat jotzen dogu gaixo askoren egoera zaugarria arintze aldera, eta, aukera dagoan guztietan, herritarrek hautatu dabenez hizkuntzan artatzeak daukan garrantzia azpimarratu gurako geunke.

Hori dala eta, Topaguneak kezka handiz jaso dau hainbat erakunde eta eragileren hizkun-

tza praktika desegokien barri, euskaldunen eskubideak ahaztuz. Bat egiten dogu, beraz, era honetako egoerak jasan dituenak egindako salaketakaz, eta eurak zuzentzeko eskatzen deusegu ardura hori dabena. Bide batez, dei bat egiten deusegu euskaldun guztiai osasun erakundeak nahiz bestelakoakaz harremanak dituenan euskerearen aldeko hautua egin dagien.

Topagunearen jardunera bueltauz, beste alor askotan legez, egoera sano kezkarria da gurean be: martxan genduzan ekimen asko bertan behera geratu dira, udalekuak eta udako programak arrisku bizian dagoz, hedabideetan publizitate sarrerak nabarmen murriztu dira, eta asko ezin dira banandu, lantalde batzuek ABEEra jo behar izan dabe, aurreikusitako diru laguntzak eta finantziario bideak ez dakigu zertan geratuko diran... Sasoi gatak aurreikusten doguz, egitasmo eta egitura askoren biziraupena bera zalantzan ipini daikienak.

Egoera hau dala eta, erakunde guztiakaz gabiz berbetan, sortuko dan kaltea ahalik eta txikiena izan daiten eta euskereak agenda sozio-politikoan segidu dagian. Horregaitik, guztion artean ebatzi dogu Euskalrdiari eustea eta prestaketa lanetan jarraitzea, jakinik be egokitzapenak eta moldaketak egin beharko doguzala. Eta ez hori bakarrik; aprila amaieran etxealdian burutzeko ariketa masibo bat proposau geuntsen Ahobizi eta Belarriprest guztiai: Etxealditik Euskaldira ekimena.

Euskaltzaleen Topagunea osotuten dogunok, beraz, modu aktiboan eta eregitzailean jarraituko dogu gure hizkuntza eta kulturea indartzeko lanean, krisiak gehien kolpetuko dituan sektoreakazko alkartasunetik eta enpatiatik, inor bazterrean itxi barik. Prozesu honetan, alkarlana eta ilusino ezinbestekoak izango dira, komunitatea trinkotzea funtsezkoa, eta euskereak, ardatz, lotura eta balioen transmisore izan beharko dau.

Barriro be, ezina, ekinez lortuko dogu.

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
Publizidadea: 649 979 115

[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gaitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazino  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)

★ BEER & EDARIAK  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91  
Galder 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 IEMOA - [beeredariak@gmail.com](mailto:beeredariak@gmail.com)



## LUMATUTEN



## GONTZAL MENDIBIL

Iparragirre  
1820-2020

**A**urten, 200 urte beteko jakuz Iparragirre jaio zala eta arratiarron gogoetan dago 1992. urtean Zeanuriko Undurragako zelaietan antzeztu genduan *Iparragirre Hegalaria* antzerki musikala. Ahaztu ezinezko irudiak hareek! 28 urte igaro dirala? Bai, bizitza arin joakunaren seinale.

Bertan parte hartu eben guztiak eta gugandik joan diranak, geure memorian eta bihotzean daroaguz. Gogoangarria han bizi genduana eta beste hainbat uritan antzeztutakoak be!

Iparragirreren historiara bagoaz, 1854. urteko San Antonio egunean Urkiolan izandako kantaldia, gerora, egun erabakiorra izango zan. Iparragirreren kantuak, bihotzak mobidu arazo eutsen han egozan 6.000 ikusentzunleai, *Gernikako Arbola* kantua entzutean, txapelak burutik jaso eta han belaunikatu ziran errones guztiak.

Bidaiari ipurtarina eta joan-

etorriaren ibilkeran ebilen espiritu hegalaria zanez, bizi dogun konfinamentu hau seguru ez ebala ondo eroango gure Iparragirrek. Etxetik aldentzea zan bere patua, bizipen barrien bila beti. Euskal Herririk kanpo egon zan urterik gehienetan, baina bere kantuak adierazoten deuskuen legez, herrimina eukan egoan lekuan, horixe bere saminik gordinena. Kaltzakorta idazle markinarrak dinoan moduan: etxetik atera ondoren ikusten da etxeko edertasuna.

Berak sortutako kantuak ibilerearen eta sentipenen kronikak doguz, herriaren burubihotzetan betirako geratu jakuzanak. Gure herriaren indarra eta arimea bereganatzen eta kanporatzen jakin izan eban Iparragirrek eta ez dabe galdu gaurkotasanik.

Azkenean, herriratu zan eta babes pobre baten limosnatxo jasoko dau, ez sendiak ekarteko bestekoa eta han bihotzaren urraduran, heriotzearen atarian, madarikatu izango dauz goiak eta beheak eta orduko bertako agintarien laguntza ustelak.

## ZERTZEAN



## Avanti

## IRANTZU LEKUE



## BEGI TXINDORRA

**A**upa Etxebeste!ren Arratiako bersinoa dakarku argazki honetan Deiene Gurtubai lagunak konfinamentua arinduteko. Asier Altunak eta Telmo Esnalek 2005ean zuzendutako komedian, Patricio Etxebeste enpresaburu eta alkategaia, diru guztia xahutu dauala eta ezin dirala oporretan Marbellara joan konturatuten da. Herrian inor ez konturatzeko eta itxurak manteneduteko hilabete osoa etxean sartuta gelditu beharko dira.

Lege-dekretu baten bidez, salbuespena orokortu dan arren, etorkizuna asmatu egin eben zelanbaist Altunak eta Esnalek eta oin danok gara Patricio Etxebeste eta familia.

Orduko komedian legez, umorea ez daitela faltau!



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa**  
hagin klinika  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odotzargia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bikala  
T. 94 631 50 39  
Kalegatu Zerbaita 900  
R.P.S. 21/06

**ASESORIA  
Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Lehendakari Agor 20  
**Eztoitz**  
Agortzen gaurtik aurrera!



ARRATIA

## Arratian jatekoa erosteko lain ez daukan jente kopurua hazi egin da alarma egoeran hartutako neurrien ondorioz

Martiaren 14an, estaduan alarma egoerea ezarri zan eta ondoren, aktibidade ekonomikoa eten egin zan. Hori dala-eta, jente askok lana galdu dau eta galduko dau, ostalaritzan batez be. Autonomoak be galera handiak ditue, aktibidade laborala etenda egon arren, lokalen alkilerrak ordaintzen jarraitu behar dituelako. Eta kontratu barik lan egiten eben persona asko –etxeko eta zainketa lanak egiten ebezan papelik bako andra migranteak, esate baterako– lan barik geratu dira. Ezelango diru sarrera barik, Arratiako Gurutze Gorrira jo dabe askok laguntza bila. Arratiako 89 familiak jaso dabez aprilean janari loteak.

### Erredakzioa

Egoera larriari erantzun ahal izateko, Arratiako Gurutze Gorriak (AGG) Arratiako alkateak ipini zan kontaktuan eta dendetan janaria batzeari ekin eutsien. 3.100 kilo janari jaso eta preminan dagoan jentearen artean banandu ebezan.

AGGk lan egiten dau Bizkaiko Elikagai Bankuko gestinoa aurrera erosten. Kofinamentu sasoiaren be, jatekoen banaketea egiten dau Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) Gizartekintzako langileak alkarlanean. Holan, martiaren 24tik 28ra, banaketea egin eben etxez etxe, prebenzino neurriak hartuta.

Banaketea egin eta astebetara "familia eta banakako asko helitzean hasi ziran laguntza eske, bai AUMera baita AGGra. Beharizan barri honeekaz batera Bizkaiko Elikagai Bankuko itxierearen barri emon euskuen. Beraz, ez egoan Arratiara elikagaiak ekarteko aukerarik" azaldu deutso BEGITURI Idoia Zuloaga Arratiako Gurutze Gorriako Gizarte Eskuhartzerako Teknikariak.

### Erosketetarako baleak

Egoera honen aurrean, aprilaren 8an, Arratiako Gurutze Gorri Arratiako Udalen Mankomunitateagaz ipini zan harremanetan eta preminan dagozanai lagunduteko erosketak baleak erabiltea proposatu eutsan. Mankomunitateak 1.000 euroko diru sarrera emon eutsan Arratiako Gurutze Gorriari laguntza barri hau martxan ipinteko. Erosketak baleak familiakoen kopuruaren arabera dira; 45, 70 eta 90 eurokoak. Laguntza jasoko dabenak "Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizartekin-

tzako langileen deribazioen birtartez hautatzen dira. Behin Arratiako Gurutze Gorriari deribazioa heldu, erosketak egin eta familia baxotxari etxera erosten jako konfinazino egoerea ziurtatuz. Erosketak hamabost egunerako egiten da eta bertan beharrezko elikagaiak bakarrik erosten dira; hau da, aldeztu aurretik itxita dagoan zerrenda bat erabilten da" dino Zuloagak.

### Elikagaien Bankua martxan elikagai nahiko barik

Ondoren, Elikagai Bankuak kontaktuan ipini ziran AGGkoak eta aprilean banaketea egingo zala esan eutsen. Banaketea aprilaren 28, 29 eta 30erako egoan aurreikusita Arratiako 89 familiari lagunduteko. Herri txikietan etxez etxe egingo zan eta Lemoan eskoletan eta Igorren kiroldegiko frontoian.

Baina banaketea egingo zala erabiltzaileak abisuta egozanean, AGGkoak Elikagai Bankura joan eta atendidu beharreko personentzako jateko lain ez egoala ikusi eben. Beraz deialdi bat egin behar izan eben Arratiako saltokietan elikagaiak batzeako aprila-

ren 23tik 30era.

AUMk beste diru kopuru bat emon eban erosketak bale gehiago bananduteko.

### Garraio zerbitzua

AGGk martxan eukazan beste proiektu batzuk be, inoz baino beharrezkoagoak bihurtu dira konfinamentu sasoiaren. Euretako bat ospitalera joateko garraio zerbitzua da. Izan be, badira "eten ezin diran osasun konsulta batzuk, onkologian, kardiologian... zenbait proba garrantzitsu... eta gaixoa ospitalera joan behar da. Gaixo honeek konsultara bakarrik sartu behar dira baina bidaia behintzat beste persona batek lagunduta egin ahalko dau" dino teknikariak. Eta horretarako AGGk garraio bi egokitu ditu. Izan be, segurtasun neurriak bermatzeko, zerbitzu baxotxean gaixo bakarra joaten da, gura badau, familia edo lagun batek eta erabiltzaile baxotxari maskarea eta eskularruak emoten jakiez. Hitzordua egiteko 94 673 62 62 telefonora deitu behar da.

Botikak etxera erosteko zerbitzua be eskaintzen dau Gurutze Gorriak, BFA eta farmaziak alkarlanean.



LEMOA

## Enpresa txiki batek osasun materialerako prototipo bi egin ditu

### Erredakzioa

Lekun Caucho Plastico S.L.k Galizako zentro teknologiko batek alkarlanean arnasgailuetarako malgukia diseinatu eta prototipoa egin dau eta Euskal Herriko enpresa multinazional bigaz osasun erabilerarako material berezi baten prototipoa. Prototipo biak homologatze prozesuan dagoz.

Lekun Plasticos, Lekun taldeko enpresa txiki bat da, Lemoako Pozueta industrialgunean dagoana. Zortzi langilek egiten dabe lan bertan eta 18 urteko esperientzia dauka kautxu eta silikonak produziduten. Normalean, material honek erabilerarako industrialerako egiten ditu, baina COVID-19ak sortutako osasun krisiari erantzuteko, osasun erabilerarako mate-

rialak diseinatu dabez. Homologatu ezker, beste enpresa handiagotan fabrikatuko dira.

Europako espezifikazioak jarraituta diseinatu dabe arnasgailuetarako malgukia, Galizako zentro teknologiko batek batera. Beste prototipoa material berezi bat da oso mehea. Homologatukoan, honen fabrikazioa be Arratiatik kanpo egingo da.

Lekun Caucho Plasticos-en materialak osasun erabilera euki ahal izateko, egiteko prozesua luzatu egin behar izan dabe. Industrian erabilten diran "kautxuak eta silikonak material toxikoa izaten dabe eta hau bolatilizatu egiten da eta amastu daiteke" azaldu deutso BEGITURI Lekunetik. Osasun erabilerarako hori kentzean deutso ekoizpen prozesua luzatuz.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Diseinu aldaketea barruko orrialdeetara heldu da

### Erredakzioa

Hamazortzi urte betetean BEGITUR diseinu barriagaz ekin deutso oingo etapari. Aurreko zenbakian, mantxeteak eta azalak euki eben diseinu barria. Oingoan, barruko orrialdeetara be ailegau da.

Martin Muro diseinu barriaren egilearen arabera, "BEGITUREN irudi barriak aldaketa sotilak eskatzen ebezan aldizkariaren make-tazinoan. Flat design edo diseinu lau lango joera iraunkor baten oinarrituta, espazioa optimizatu dogu, marka zaharra definituten eben elementuak sinplifikatu doguz, sinpleago eta dotoreago eginaz, holan aldizkarian imple-

mentautako marka indartzen laguntzen dabelako. Open sans tipografiaren inplementaziotik hasi eta, modu orekatuan egingo dako kolore deigarrien baturara arte, eta zuriuneak erabilteak, logotipo barriagaz irudi ezagunagoa, eta BEGITUREN etorkizunerako dotoreagoa, marketan dabe".





## ZEBERIO

## Udala eta DronbyDron enpresearen artean ez zan akordiorik egin droneak erabilteko Zeberion

### Erredakzioa

Aprilaren 16an publikau eban El Correok, tamaina handiko zaborrak ez ixteko, Udalak dronakaz zelatatuko ebazala herritarrak. Kontrol sozialerako neurri honek haserre handia sortu dau zeberioztarren artean eta droneak erabilteko proiektua atoaan bertan behera ixteko eskatu eben komunikadu baten. Ondoren, Udalak jakitera emon dau Udala eta Dronbydron enpresearen artean ez zala droneak erabilteko akordiorik egin.

Udalaren jakinarazpenaren arabera, aprilaren 16an, Udala eta Dronbydron enpresearen artean telefono bidezko lehenengo kontaktua egin zan eta batzar bat egitea adostu zan. Batzarra, aprilaren 21ean egin eben eta han ebatzi zan teknologia hori ez dala eraginkorra zaborren arazoa konponduten laguntzeko. Horregaitik, ez zala "ezelango akordiorik egin Udala eta enpresearen artean" jakinarazo dabe.

Udalak adierazo be egin dau, "martxan jarri ezker", helburua ez zala izango "bideo bigilantzia ezta kontrola be, zuzenean irudia transmitidutea baino, hondakinen egoerea ezetuteko. Ezelango grabazino barik".

### Herritarren haserrea

Udalak herritarrak dronakaz zelatatuko ebazala prensan publikau eta segiduan, herritarrak euren

haserrea adierazo eben "Dronik ez, eskerrik asko" izeneko komunikaduan. Bertan, bizilagunak, "kontrol neurri hori gehiegizkoa" eta "eraso zuzena" dala jotzen eben eta "dronak erabiliz, auzotarrak zelatatzeo proiektua atoaan baztertea" eskatzen eben. Izan be, holango kontrol neurriak "zelaturik dagoan gizarte batera eroaten gaitu, menderatze eta neurri zapaltzaileen bitartez funtzionetan dauana".

### Hondakinen arazoa

Udalaren arabera, honen guztiaren atzean tamainu handiko hondakinen arazoa dago. Askok, udaletxean abisua emonda hilaren bigarren egunean atera beharrean, "edozein egunetan, koltxoak, altzariak eta bestelako hondakin handiak, herriko eukiontzia desbardinetan" botaten dabezala dinoe udaletik.

Arazoa, handiagoa egin zan, alarma egoerearen ondorioz zerbitzua kendu egin zanean. Hori dala-eta, Udalak martiaren 18an kartel informatiboak ipini ebazan hondakin eremuetan, aprilaren 1ean, udaleko sare sozial eta tabloietan mezu bat zabaldu eban eta aprilaren 14an, "etxe guztietara liburuxka bat bidali zan, besteak beste, tamaina handiko hondakinen zerbitzua eten zala gogoratuz".

Dana dala, aprilaren 16an prensan publikau zanaren ondoren, "hondakinen inguruko arazoa hobetu dala" dinoe Udaletik.



## ARRATIA

## Errota Fundazioak enpresa txiki eta autonomoentzako aholkularitza zerbitzua ipini dau martxan

COVID-19aren ondorioz sortutako alarma sanitarioak esparru sozioekonomiko barri baten aurrean jarri gaitu sortu dan ziurbakotasun ekonomikoagaitik.

Arratia ez da salbuespena. Egoera honek, enpresetan, establezimentuetan, denda, ostalari eta autonomoetan eragiten dauzan ondorioak arintzeko asmoz, Arratiako udalak Errota Fundazioari eskatu deusie aholkularitza zerbitzu bat martxan ipintea. Zerbitzu honen nondik norakoak azaldu dauz Iratxe Goikoetxeak, Errota Fundazioko koordinatzaileak.

### Erredakzioa

#### Zelan sortu da zerbitzu hori? Arratiako udal guztiak hartu dabe parte?

Bai. Errota, Arratiako udal guztiakaz jarri zan kontaktuan eta batzar bat egin genduan eskualdeko egoera ekonomikoaren inguruan berba egiteko. Udal guztiak prest agertu dira zerbitzua martxan ipinitako eta aho batez parte hartu dabe. Izan be, garrantzitsua da udalentsat zerbitzu hau eskaintzea herri bakoetako establezimentuak; eta zein era hobea, Arratia mailan egitea baino Errotaren bitartez!

#### Noz abiatuko da eta zein izango da zerbitzu horren eginkizuna? Nori dago zuzenduta?

Momentu honetan lan eskaintza atera dogu eta maiatza bitartean eskaintzak jaso eta alkarriketak egingo doguz, bagilean zerbitzua %100ean martxan izateko. Zerbitzuak aholkularitza zerbitzua eskainiko dau, martxan dagozan diru-laguntzai buruzko informazioa emon eta kasu konkretuetan diru-laguntzen tramitazioan be eskainiko dau laguntzea. Zerbitzua Arratiako enpresa txiki, denda, ostalari, autonomo eta establezimentuak zuzenduta dago. Dana dala, oin be Errotagaz kontaktuan ipinten danari zerbitzua eskaintzen gabiz.

#### Ze laguntza klase emongo da? Non egongo da eta ze ordutegi izango dau?

Emongo dan zerbitzua, aholkularitza emotea da, hau da informazioa eskaintzea. Zerbitzu hau Errotako bulegotik eskainiko da (Askatasun kalea 10, 2. solairua Areatza) eta arretarako ordutegia 08:30-14:30 izango da asteleheneetik barikura bitartean.

#### Horretarako kontratazino bat egingo da. Azaldu apur bat. Errotak langile bat kontratauko



Iratxe Goikoetxea.

dau zerbitzu hau aurrera eroateko. Lan eskaintza martxan jarrita dago eta maiatzaren 15era arte izena emon ahal izango dabe [info@errota.eus](mailto:info@errota.eus) helbidean. Persona honek bete beharko dituan betekizunak hurrengoak izango dira: Enpresagintza arloko ikasketak izatea, euskera jakitea eta lan hizkuntza izatea, Arratiakoa izatea edo eskualdea ondo ezetutea, tresna informatikoak menderatzea, aholkularitza edo antzeko lan esperientzia izatea. Aurrez aurreko arreta eta personakazko tratuan esperientzia balorauko da eta enpatia, proaktibitatea eta aldaketetara egokitzeko erraztasuna lango zeharkako gaitasunak be kontuan hartuko dira.

Kontratazino hau egiteko Arratiako udal guztien laguntza ekonomikoa izango dogu.

#### Arratian zenbat jentek egiten dau behar zerbitzu sektorean?

Arratian 1.000 establezimentu inguru dagoz, honeetatik hirugarren sektorea da establezimentu kopuru handiena daukan sektorea. Atzen urteetan, garapen hoberena izan daben sektoreak zerbitzuak, garraioa eta ostalari-tzea izan dira. Enplegua daukan biztanleriari jagokonez, industria sektorean biztanleriaren % 46,5-ek lan egiten dau eta zerbitzuetan % 47k.

COVID-19aren eraginak zeintzuk izango diran jakiteko goizegi da, momentu honetan establezimentu asko zarratuta dagozalako, enpresa batzuk Aldi Baterako Enplegu Erregulazino Espedienteak (ABEEE) bideratu dituelako eta honek guztiak izango dauan garapena aztertu behar dogulako.

Danon arteko alkarlana inoz baino garrantzitsuagoa da momentu honetan, COVID-19ak eragindako krisi egoera ahalik eta arinen gainditzeko.



ARRATIA

IGORRE

## Oihane Zulet: "Indarkeria matxistek etxeak espetxe bihurtzen ditu"

Konfinamentu egoera, arrisku egoera da indarkeria matxistaren biktimetzat. Eta itxialdiak egoera latzago egin dau. Oihane Zulet Aiestaranek, Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Teknikariak, konfinamentu sasoiaren atendidutako andren zenbakietan ez dagola alderik dino aurreko hileetako edo igazko datuakaz alderatuta. Baina egoera desbardina da eta kasuak be bai.

### Erredakzioa

#### Konfinamentuak larriagotu egiten dau indarkeria matxistaren biktimen egoera?

Bai. Indarkeria matxistek, etxeak espetxe bilakatzen ditu. Andra eta umeentzat gizartean babesgunez jaten diran etxea edota familia lango testuinguruak indarkeria guneak dira sarritan. Beraz, bai, konfinamentu egoera hau arrisku egoera da euren senideengandik indarkeria sufriduten daben andra eta umeentzat.

Indarkeria matxistaren tresnerik bat kontrola da, eta konfinamentuak kontrola erabilteko erraztasuna emoten dau. Honegaz lotuta, eta aldi berean, konfinamentuak andrak indarkeriari aurre egiteko garatu dituen estrategiak aurrera eroateko zailtasunak dakar.

Gainera, alkarbizitza behartu honek, tensino eta krisi egoerak areagotzen ditu. Hori arrisku faktore bat da indarkeria matxistez berba egiten dogunean; izan be, indarkeria gertaerak gogortu ahal ditu.

#### Zeintzuk dira egoera zaurgarrienean dagozanak?

Egunotan asko entzuten da birusak danok bardinak garala gogora arazoten deuskula. Errealidadetik urrun. Ez, birusak ez gaitu bardin tratetan, ez daukagu kutsatzeko aukera bera, eta ez gara bardin gaixotzen, ez dogu osasunera sartzeako aukera bera, ezta sendatzeko prozesuetan aukera berberak be.

COVID-19agaz gertatzen dan moduan, indarkeria matxistea be ez da danontzat bardina. Gorputz askorentzat, indarkeria matxistaren bizipenari beste zapalkuntza mota batzuk gehitzen jakoz, errazismoa edo kapazitismoa, besteak beste.

Errealidade hori dala eta, indarkeriazko ingurunetik aterateko aukerea, aterateko modua eta horren ondorioak asko aldatzen dira. Hau da, ez da gauza bera laguntza sare bat izatea edo ez izatea, koltxoi ekonomiko bat, umeak izatea, hizkuntza ofizialak menderatzea, egoera erregularizaduan egotea edo ez, eta abar luze bat.

**Konfinamentuan erasoak ez**

#### sufriduteko edo sufridutakoan etxetik alde egitea posible da?

Erakundeak hainbat baliabide ditue egoera horri aurre egiteko: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak edo Zerbitzu Espezializatuak, esate baterako, Biktimaren Arretarako Zerbitzua (BLZ). Hor, urtekera prozesuan lagunduko daben laguntza hartu-emonak sortu leitekez, eta, gainera, laguntza ekonomikoan izapidetzeari edo etxebizitzari buruzko informazioa jaso. Laguntza eta orientazio psikologiko eta juridikorako baliabideak be badagoz. BLZk berak laguntza eta orientazio psikologiko eta juridikorako baliabideak be eskaintzen ditu. Itxialdian, telefonoz emoten da.

Familiaren etxetik berehala urteari buruz egiten dogunean berba, kasuaren preminaren arabera, harrera pisuak, ostatuak eta izaera desbardineko egoitza baliabideak dagoz, eta aktibo jarraituten dabe konfinamentu egun honeetan. Andrea salaketa bat ipinten joaten bada, komisariatik bertatik larrialdiko ostatu eskaini ahal deusie, baita haren zaintzapean dagozan personai be, arrisku handia dagoz la jotzen bada. Ostatu horreetan andrak laguntzea jasoten dabe eten barik eta non dagozan ez dabe jakiten herritarrek.

Andrea salaketa ipintera joaten ez bada eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan laguntzea eskatzen badau, intensidade txikiko ostatu baten denpora jakin baterako plaza lortzeako aukerea dago, hau da, laguntzea txikiagoa izango da.

Baina horrek guztiak esan gura dau andreak etxetik urten gura dauala edo ahal dauala, eta hori nahiko gatxa da.

Baina badago gauza bat azpimarratu gura neukena. Herritarroi hedabideen bidez ailegetan jakuzan kasuak, gehienetan, larritasunagaitik edo berezitasunagaitik nabarmentzen dira, baina ondo dago kontuan izatea andra eta adingabe batzuek egunero egiten deusiela aurre indarkeriari. Eta, beraz, horretarako gaitasunak eta estrategiak garatu dituela. Urteetan zehar bizipenen bidez garatzen



Oihane Zulet.

diran baliabideak, edo beste andra batzuekalk alkartzeko espazioetan eskuratzen diranak; esate baterako, mobimentu feministan, ahalduntze eskolatan, edo etxeko eskaileran.

Baliabide instituzionalak alde batera itxi barik, badira baliabide ez-ofizialak, baliabide eta jakintza personal eta kolektibo ikusezin eta desbalorizatuak, egunero andrak bizirautea eragiten dabenak. Niretzat, hori ulertzea eta politizatzea funtsezkoa da indarkeria matxistaren aurkako burrukan. Baliabide horrek balioestea eta babestea funtsezkoa da, andrak askoz be prozesu atseginagoak eta iraunkoragoak sortu deikiezalako eurentzat eta ingurukoentzat, eta beraz, gogobetegarriagoak.

#### Zelan lagundu daikie auzokoak?

Galdera hau benetan iraultzailea da. COVID-19ak, besteak beste, argi itxi deusku bizitza mikroan gertatzen dala, hurreko harremanetan. Gorputz ahulak hezumamitzen doguzala eta, beraz, alkarren mendekoak garala eta alkar behar dogula. Horrek esan gura dau mendebaldeko joera indibidualistea gelditu behar dogula eta bizitza komunitarioagoetara itzuli. Auzokoakazko harremanak berreskuratu behar doguz, genduzan elikatu, hur egon, sareak sortu... Horrek zerikusia dauka lehen esandakoagaz. Taldean, dinamika eta jakinduriak sortzean dira, alkareri laguntzeko loturak; kasu honetan, indarkeria matxistaren kasuan, funtsezkoak dira.

Beraz, zer egin daikiegu auzokide moduan? Hur egon. Andra horri hor zagozala sentidu arazo, konfiantzazko eta alkareri laguntzeko loturak sortu. Partekatu. Horrek denporea eta lana eskatzen dau konfiantzazko harreman bat eregiteko.

Estrategia zehatzagoetara jo ezker, larrialdietan urteera bat batera planifiketea izan daiteke adibide bat. Galdera izango litzateke: zer aportau neike nik? Ez da gauza bera holango zerbaist bakarrik planifiketea, zeure aukerak bakarrik kontuan hartuta, edo beste andra bategaz edo beste batzukaz egitea.

#### AUMk arreta telefonikoa eskaintzen dau. Horrek zelan lagundu ahal dau?

Alde batetik, Gizarte Zerbitzuetan eta Zutitun (arreta psikologikorako zerbitzua) aurretik prozesu baten egozan andrak, profesionalakaz harremanetan segidu dagien laguntzen dau, lotura hori galdu ez dagien eta eregiten segidu dagien. Eta beste aldetik, lehen aldiz etorten diran balizko kasuak erantzun ahal izatea.

#### Zeintzuk dira konfinamentu sasoiaren Arratian atendidutako zenbakiak? Zelan interpretatu daitezke?

Arratiako Udalen Mankomunitatean ez dogu aldaketarik susmau beste hilabete batzuk edo pasadan urtearen aldean.

Baina hori ez da errealidadearen isla. Esandako moduan, andra eta adingabe askok berezko estrategiak ditue indarkeriari aurre egiteko, eta ez dira hainbat errazoiengaitik heltzean gure zerbitzuetara.

#### COVID-19ak eragindako beste egoera zaurgarrian dagozan beste andra batzuei be lagundu deuse AUMk. Azaldu apur bat ze motatako kasuetan izan dan esku hartzea.

Bikotekidearen edo senideren baten barruan gerta daitezkezan indarkeria matxistez gainera, ezin dogu ahaztu andrak bestelako indarkeriak jasaten doguzala ordena heteropatriarkalaren ondorioz, lan feminizatuak edo ezkutuko ekonomia deritxagun horren barruan sarritan kokatutako zaintza-lanak, berbarako.

COVID-19ak eragindako egoerearen aurrean, langile honeei kasu askotan ordaintzeari itxi egin deusi edo kaleratu egin ditue, eta lehen baino egoera txarragoan eta ahulagoan dagoz oin. Diru-sarrera barik eta kasu askotan erreklametako aukera barik, edo hori egiteko bildurrez, horrek ekarri daiekizan ondorioengaitik.

Gizarte Zerbitzuetara holango kasu bi heldu jakuz, lehen aldiz. Ha-ta guzti be, badakigu arazoa askoz be handiagoa dala eta andra gehiago dagozala egoera horretan.

## Lan Sailak Araluceko beharginen kaleratzeari oneretxia emon deuto



### Erredakzioa

Apirilaren 15ean, Lan Ikuskaritzak Araluceko 141 beharginak kaleratzeari oneretxia emon eutsan. Konsulta epealdia ondo egin zala jo eta aurkeztutako dokumentazioa ondo dagoala ebatzi eban. Oin Enplegu Erregulazio Espedientearen onartzea epaileari jagoko. Apirilaren amaieran edo maiatzaren lehenengo egunetan espero zan ebatzia eta sorpresa-rik ez badago kaleratzeak gauzatzeari ekingo deusie.

Araluceko Enpresa Batzordeak konsulta aldiaren irregulartasunak egon zirala dino, eta likidazio, konkurso eta kaleratze prozesu guztia irregulartzat jotzen eban. Jaurlaritzak egindako txostenak barriz, 141 kaleratzeari oneretxia emon eutsan, birkolokozinoai biderik emon barik.



## EDADEKOEN EGOITZAK

# Aprilaren amaieran, Arratia eta Zeberioko egoitzetan COVID-19rik ez

OMEren esanetan, Europan COVID-19 gaitzagaz hil diranen erdiak, zahar etxeetan hil dira. Horren jakitun, zaharren egoitzetan, neurri gogorak hartu ditue birusa sartu ez daiten.



## Erredakzioa

Izan be, koronabirusa sartu ezker, beste edadeko populazioetan baino errazago eta azkarrago kutsatzen da edadekoen artean. Gainera, zahar etxeetako egoiliarrek gehienetan, beste patologia batzuk be izaten ditue eta egoera larriagotu egiten da gaixotu ezker.

Arratian eta Zeberion, 5 zahar etxe dagoz: Diman, Arratiako Egoitza eta Piedadeondo; Bedian bat, Jandoniz eta Zeberion beste

bi: Eusebio Aldekoa eta Arbildu, hain zuzen be. BEGITU kontaktuan jarri da zahar etxeetako arduradunak egoera zein dan galdezteko eta bostetatik lauk erantzun dabe aprilaren 17tik eta 24ra bitartean. Ordurarte, ez egoiliarren ez langileen artean ez egoan, ez COVID-19ak jotako hildakorik, ezta gaixotutakorik be.

## Prebenzino neurriak

Osasun sailak eta BFAk ezarritako prebenzino neurriak era zorrotzean apliketan dira. Egoitzak

zarratuta dagoz eta ezin izan dira itxialdian beharginak beste inor sartu. Arbildun, gainera, langile batzuk zahar etxean geratu dira kanpoko kontakturik ez eukiteko eta kutsatzeko arriskua gixtuteko.

Hornitzaileak biltegietan itxen dabez produktuak, materiala, eta abar. Egoitzetara sartzeko egunero tenperatura hartzean jakie langilei eta nonok 37°C edo gehiago izan ezker ezin da sartu. Sartzeko eskuak garbitu eta maskarea jantzi behar da. Eta barruan, 1,5 edo 2 metrotako distantziak mantentzen saiatu behar dira langileak euren artean, baita langile eta egoiliarren artean be.

Hasikera baten, langileentzako Norbera Babesteko Ekipamenduak (NBE) nahikoak ez baziran be, oin, behargin guztientzako daukiezala dinoe lau egoitzetan. Zeanuriko Lanbide Heziketako Zulaibar Ikastegian egin ebezan hor erabilten dan material asko be. "Hasikera baten, konfinamendua ezarri zanean material eskasa geunkan: maskara kirurgikoak eta eskularruak bakarrik. Igorreko Osasun Zentrotik laguntzea izan dogu eta aprila hasikera heldzean joan jaku material gehiago birusari aurre egiteko: FFP2/3 maskarak, amantalak, beso-erdiko eskularruak... Zulaibargo Ikastegitik eta udaletik be laguntzea izan dogu eta babes maskarak lortu deuskuez" azaldu deutso BEGITURI Ander Garigorta Piedadeondoko zuzendariak.

Bediako Jandonizen be Zulaiarren egindako babes pantailak erabilten ditue. "Eskerrak emon gura deutseguz honetan lagundu deuskuenai: Zulaibar ikastetxe koai denpora errekorrean bialdu euskuelako babes pantailak, Bediako Udalarari astero zentroa desinfektatearren eta babes ekipoak emon deuskuen hornitzailei" azaldu dau Goizalde Diaz de Gereñu Jandonizeko zuzendariak.

Beste egoitzetan be langile guztientzako NBEak dituela dinoe eta, isolamenturako eremuak prestatu dituela, baten batek COVID-19agaz konpatibleak diran sintomak euki ezker isolatuteko.

Arratia egoitzan "hiru logela doguz ezarrita, badaezpada, no-

nor isolamentuan ezarri beharko bagendu erabilteko. Eta behar izan ezker, Eguneke Zentroa be erabili geinke egoiliarrek isolatze ko" azaldu deutso BEGITURI Naiara Zamalloa zuzendariak.

Jandonizen be "hasikera bate tik prestatu genduan eremu bat balizko isolamentuetarako, badaezpadarako aurreikusita euki gura genduan. Eta planta guztiak egokitu genduzan, egoiliarrek distantzia mantentzen ahal izateko" dino Diaz de Gereñuk.

Piedadeondon langile bi izan ditue bakartuta, baina probak egindakoan, negatibo emon dabe. "Momentuz ez da inor gaixotu" dino zuzendariak.

## Desinfekzioa

Erantzun daben egoitza guztietako zuzendariak, instalazioen desinfekzioaren garrantzia azpimarratzen dabe. Kutsaturik ez izateko "desinfekzioa eta babes" dirala kakoak dino Joseba Zugasti Arbilduko zuzendariak.

Ados dago Naiara Zamalloa Arratiako egoitzako zuzendaria. "Garbiketa intensiboak egiten doguz beharrezkoak diran produktuak, Osasun Sailak adierazotakoak. Astean birritan gitxienez, fumigetan dogu egoitzako esparru komunak eta hamabost egunetik behin egoitza osoa. Langile guztion konpromisoa funtsezkoa da, egoitzan nahiz etxean eta langileren batek etxean edo inguruan nonor sukarragaz baleuka edo COVID-19aren susmoa, ezin da egoitzara lanera etorri guztiz ziur egon arte ez dagoala arriskurik".

## Bideodeiak

Prebenzino neurriak dirala-eta, bizimodua zeharo aldatu jakie egoitzetan bizi diran edadekoai: ezin dira lehengo moduan danak alkarregaz egon; urtetea eta bisitak jasotea galazota euki dabez eta higie eta desinfekziorako neurriak hartu dira. Aldaketa honeetako asko, hau pasautakoan be geratuko dira.

Gogorrena, bisitak galazotea izan dala dinoe zahar etxe guztietan, eta egoiliarren senideakaz bideodeien bidezko hartu-emona lagunduten eta komunikazioa sustatzen saiatzen dirala dinoe arduradunak. "Senideen harremana kentzea kaltegarria dana badakigu. Ebatzi gogorra baina derrigorrez hartu beharrekoa izan da. Dana dala, egoiliarrek ondo egokitu dira egoerara, uste baino

hobeto" dino Ander Garigorta Piedadeondokoak. "Egoiliarrek euren egunerokoagaz jarraituten dabe eta familiakaz gura daben guztietan egiten dabe berba, bai telefonoz eta bai bideodeien bitartez" gehitu dau Naiara Zamalloa Arratiako Egoitzakoak. Jandonizen be egunero egiten dituela familiakoakaz bideodeiak dinoe "hasikera arraro egiten jakien egoiliarrai, ez egozalako ohituta, baina oin irrikitan egoten dira".

Zeberioko Arbildu egoitzako Joseba Zugasti zuzendariak, egoiliar batzuk oin lehen baino kontaktu gehiago daukiela familiakoakaz dino. Izan be, bideodeiak gehie nez 2 edo 3 egunetik behin egiten ditue eta bideokonferentziak 4-6 eguneko tarategaz.

## Goiri eusten

Aurrera begira, egoera honegaz biziten ikasi beharko dala uste dabe zahar etxeetako arduradunak eta hartutako neurri asko, higie eta distantziari jago kienak batez be, behin-betikoak izango dirala. Txarrena pasau dala pentsetan dau Zamalloak, ekipoak eta neurriak ezarrita dagozalako; baina ez da eretxi bardinekoa Piedadeondoko zuzendaria "koronabirusa sartzean bada, orduan izango dogu egoerarik latzena", dino. Dana dala, inportanteena ez kutsatzea dala eta horretarako prebenzinoari, zaintzari eta hartutako neurriai eutsiko deutseela dinoe gure eskualdeko egoitzetako arduradunak.

Egoiliar eta beharginen animoak ondo dagozala dinoe. "Langileen animoak oin ondo dagoz. Egon dira tensino handiko momentuak, batez be pandemia honen hasikera, baina oin ondo. Eta egoiliarrek be ondo, euren senitartekoak noz besarkatuko esperantzan" dinoe Arratiako Egoitzatik.

Piedadeondon be hasikera gogor egin jakie dinoe "animo aldetik oin dala aste batzuk baino hobeto gagoz oin. Egoiliarrek eta geu be, batzuetan tristetu edo apur bat artegatuten gara, baina danon artean animetan saiatuten gara".

Arbildun, barriz, beharginen animoak goian dagozala dinoe "konturatzen dira zein lan ona egiten dabizen", eta Jandonizen be animoak "oso goian" dagozala dinoe bai beharginenak baita egoiliarrenak be. "Familiak emondako babesagaz sano giro ona dago" dinoe.

## Egoitzak

### Erredakzioa

Bost egoitza dagoz gure eremuan eta lauk erantzun dabez BEGITUREN galderak. Lau horreetan ez egoan COVID-19 koronabirusak jotako ez hildakorik ez gaixorik, erantzundako fetxan.

### Arbildu (Zeberio)

28 egoiliar (Zeberio, Ugao, Arrigorriaga eta Basauri).  
16 langile.  
Erantzunak aprilaren 22an.

### Arratiako Egoitza HEA (Dima)

57 egoiliar (Arratiakoak gehienak, Bizkaikoak danak).  
45 langile.  
Erantzunak aprilaren 17an.

### Jandoniz Erresidentzia pribadua (Bedia)

45 egoiliar (Arratia, Galdakao, Bilbo, Enkarterriak, Basauri eta Derio).  
35 langile.  
Erantzunak aprilaren 24an.

### Piedadeondo (Dima)

22 egoiliar (gehienak Arratiakoak).  
16 langile.  
Erantzunak aprilaren 22an.



COVID-19A

# Bagilaren amaierara edo garagarrilaren erdikaldera arte luzatuko da "normalidade barrira" helduteko prozesua

## Erredakzioa

Apirilaren 28an, Espainiako gobernuko presidentek, Pedro Sanchezek, azaldu eban zelan izango dan itxialdia ixteko prozesua. Gitxienez, bagilearen amaierara arte iraungo dau eta lau fase izango ditu. Fase batetik bestera pasetako, probintzia bakotzak ezarriko dituen adierazle batzuk bete behar izango ditu. Balizko normalidadera buelteteari begira jarri da gizartea. Ha-ta guzti be, hainbat gauza bertan behera geratu dirala jakin dogu pasa dan hamabostaldian. Aurtengo uda, ezta udagoiena be ez dirala aurreko urteetako modukoak izango argi dago.

Apirilaren 26an umeak hasi ziran kalera urtetan, itxialdia ixteko bide luze horretako lehenengo pausuak emonez. Oindino parkeetara joan ezin diran arren, umeak hasi dira urtetan etxeko nagusi batek, ordubete eta etxe inguruetan. Hilaren 2tik helduak be urten daitezke pasean, edo kirola egiten bakarka.

Konfinamentua arintzeagaz batera, populazio gehienak maskarak behar izango dauz. Maskarak, garraio publikoan erabiltea gomendatzen da eta kalera urteteko be erabilten dabez askok. Hori dala-eta, Arratiako udal batzuk maskarak etxeetara bananduten dabiz. Areatzan umeai herriko jostakileak egindako maskarak banatu eutsazan Udalak apirilaren 26an. Artean be maskarak banandu ditue etxeetan eta Zeanurin, maskarak eta hidrogela. Igorren, Walter Pack enpreseagaz izandako hartu-emonaren ondorioz enpresek emondako biserak banandu dauz Udalak zabalik dagozan herriko komertzio eta establezimientuetan.

Herriko komertzioak eta establezimientuak jagokienean, herri bizi baten adierazle dirala eretxita, Igorre eta Lemoako Udalak herritarrek bertoko komertzioetan erosten animetako kanpainak abiatu dabez. "Herriar osasuntsu eta herri bizi baterako... Igorren erosi. Babestu ditza gun herriko merkatariak" da Igorreko kanpainaren leloa.

Lemoan, herriko komertzioa launduteko 10, 20 edo 50 euroko bonoak erosi daitezke [www.lemoaureztatzen.com](http://www.lemoaureztatzen.com) webgunean. Bono horregaz establezimientuak diru laguntzea jasoko dau momentuan fakturari aurre egin ahal izateko eta erosleak, establezimientua zabalik dagoanetik abenduaren 31ra arte erabili ahal izango dau.

Udal zergen egutegia be atzeratu egin dabe hainbat herritan, adibidez, trakzino mekanikoko ibilgailuen zerga, Bedian eta Lemoan.

Edadekoai segimentua egiten jarraituten deusez udal telefono deien bitartez. Artean, barbarako, 60 urtetik gorakoai deitu eta 8 pertsonagaz astean-astean berba egiten dabe, ezer behar daben jakiteko.

## Umeen itxialdia

Itxialdia gogorra bada persona guztientzat, umeak bizi izan dabe konfinamenturik gogorrenetako bat. Alde batetik, euren garapenerako beharrezkoak diran aire libre, mobimentu fisiko eta beste umeak sozializazio barik egon diralako, eta neurri baten oindino be badagozalako; eta beste alde batetik, eskola barik geratu diralako eta online hezkuntza ez dalako ume guztietara heltzean. Horrezaz jabetuta, eskoleagaz alkarlanean, Arteako Udalak eskolako materiala eta ordenagailuak banandu dauz etxeetan, ikasleak etxetik ikasten jarraitu ahal izateko.

Zeanuriko Udalak be gura izan dau txikerrenen itxialdia arindu. Horregaitik, eskolak zarratu ziranetik urteak bete dituen umeai opariak egiten deusez: margoak, liburuak...

Eskolak zarratuta egongo dirala ikasturtea amaitu arte esan eban Sanchezek, baina salbuespenak be egongo dirala eta zabalik egongo dirala gelak errefortzua behar daben umeentzat edo-eta gurasoen konziliatuz eskubideak holan eskatu ezker.

Udari begira, Arratian, umeentzako udalekuak, zerbitzua eskaintzeko asmoari eusten deusez eta programa alternatiboak dagoz prestatzen, COVID-19aren aurretik presta-

tutakoa aurrera atera ezin bada, neurri barriak egokitutako eskaintza egiteko.

## Jaiak eta jaialdiak

Jaiak, jaialdiak eta jente asko batzean dituen ekitaldiak kolokan dagoz. Herriko lehenengo jaiak, Igorrekoak, urri bigarrenaren 23tik zementuaren 1era pasetea ebatzi eban Igorreko Jai Batzordeak. Arratian, bagilean, sanjuanak Bedian eta Ubiden, eta sanpedroak Diman eta Arantzazun ospatuten dira. BEGITU inprentara joan zanean, Bedian eta Ubiden, konfinamentua arintzeko planaren zain egozan, sanjuanak bertan behera itxi edo agintariak esandakoai egokituta aurrera egiteko.

Dimako Jai Batzordeak jaiak fetxa barik atzeratu ditu eta Arantzazun, Udalak etxeetara buzoneautako orrian jakinarazo dau sanpedroak ez dirala ospatuko osasun egoereagaitik, eta egoera egokia izan ezker, sanfaustoak ospatuko dirala.

Auzuneetako jaiak be bardina gertatzen da. Areatzako Karpoko jaiak, maiatzaren lehenengo aste-goienean ospatzeak ziran, zapa-

tuan jaiak eta domekan azokea hain zuzen be, baina bertan behera geratu dira eta aurten ez dira egingo. Lemoako Arantxe auzoan barriz, jaiak balkoietan ospatuko ditue.

Bertan behera be geratu dira maiatzean egitekoak ziran beste hainbat jaialdi eta ganadu azoka be: LemoaKustikFest barbarako, edota Dimako Ganadu, Artisan eta Nekazaritza Azokea eta Zeanuriko San Isidroko ganadu azokea.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako, Udabarria Bertsotan sailkapen fasea be maiatzean zan jokatzekoa, baina, Bizkaiko Bertsotale Elkarteak, printzipioz, urri lehenengora atzeratzea ebatzi dau.

Uda eta udagoieneko ekitaldi jagokienean, batzuk bertan behera geratuko dira eta besteak oindino ez dakiguzan segurtasun neurrietara egokitzen saiatuko dira. Holan, Dimetalfest heavy metal musikearen jaialdia bertan behera geratuko da "aurreko urteetako izaera bardinean" ezin bada ospatu; hau da, "aforo mugaketa eta antzeko segurtasun neurriak" ezarri ezker, bere

izakerea galtzeaz gainera, ekonomia aldetik be ezin izango dala aurrera eroan jakinarazo dabe antolatzaileak. Holan balitz, seigarren edizinoa 2021ean izango litzateke. Halanda be antolakuntza lanean dabil aurten egin ahal izateko.

## Bagilearen amaiera edo garagarril erdikaldera arteko prozesua

Kasurik onenean, bagilearen amaieran amaituko litzateke "normaltasun barrirako" prozesua; ezpabere, garagarril erdikaldera arte luzatzea aurrekusten dau Sanchezek. Prozesuak lau fase ditu. Oingo fasean, pasean urten daiteke eta maiatzaren 4tik aurrera, lokalak zabaldu ahal izango dira, ule-apaindegia, barbarako, banakako jarduerak eta aurretiko hitzorduagaz. Kirolari profesionalak eta federatuak be banakako entrenamentua egin ahal izango dabe.

Maiatzaren 11tik aurrera, saltoki txikiak eta tabernetako eta jatetxetako terrazak edukierearen %30ean zabaldu ahal izango dira Bizkaia hurrengo faserako pasea lortu ezker.





## AZKOREA

# Aitzol Atutxa: "Jenteak folklore moduan ikusten dau azkorea, ez kirol moduan"

Aita be azkolari izanda, txikitatik hasi zan Aitzol Atutxa azkoran eta 50 txapel baino gehiago irabazi ditu. Bera azkolari handienetakoa izanda, azkorak garrantzi handia dauka bere bizitzan: bertatik biziteko beste emon ez arren, bizia emon deusala dino.

Bilboztarra izan arren, Aitzol Atutxak beti izan dau loturea Arratiagaz. Gaur egun Diman bizi da eta seme bi daukaz.

## Erredakzioa

**Zelangoa zinan txikitan? Aita azkolaria izanda, txikitatik hasiko zinan azkoran. Pentsetan dot eskolako zure lagunentzat bitxia izango zala...**

Txikitan Bilbon bizi nintzan. Ume azkolari bat ikustea ez da ohikoa inon, baina Bilbon oindino gixiagi. Orokorrean, harriduraz hartzean dau gizarteak hori: bai lagunak baina baita irakasleak be. **Sano gazte hasi zinan lehian eta dozenaka txapel irabazi dozuz. Zeintzuk izan dira zuretzat txapelik inportantee-nak eta zergaitik?**

Jolasean hasi nintzan, aita azkolaria zan eta "zer ikusi hura ikasi". Hain gazte hasita, 50 txapeletik gora daukadaz, baina mugari desbardinak dagozala esango neuke.

Lehenengo txapela aitagaz lortu neban Bikotekako Bizkaiko Txapelketan eta niretzat berezietako bat izan da. Horren ondoren Euskal Herriko Gazteen Txapelketakoa be berezia da. Maila Nagusiko lehenengo urratsa, Urrezko Aizkorako binakakoa izan zan, Donato Larretxeagaz batera, ordurarte nire idolo ziran horreen kontra.

Azkenik Euskal Herriko 5 txapelak jarriko neukez. Hori Olinpiar Jokoetan urrezko domina lortzearen pare da guretzat, lortu daikungun lorpenik handiena.

**Zein da zure egunerokotasuna? Zelan konziliatzen dozu lana, entrenamentuak eta bizitza personala?**

Egunaren zatirik handienak beharizan minimoak asetzen emoten dogu, lo eta jan. Baina horrez gainera, gaur egungo sistemeak eraginda, gehientsuenoi lanean joaten jaku egunaren zatirik handiena. Hortik aurrera tarte gitxi geratzen da. Ofiziotik baino afiziotik dauka gehiago gure kirol honek eta beste edozeinentzat legez *hobby* bat da hau. Ezinbestekoa da etxekoen eta ingurukoen babetesa honetan jarraituteko.

Lana, entrenamentuak eta familia buztartzen nahikoa lan



Argazkia: Aritz Loiola.

badaukat, zaletasunentzat tarte asko euki barik. Nire zaletasun nagusiak kirolaren inguruan dira, baina baita sukaldaritza, irakurtea, musika entzutea...

**COVID-19ak aldatu dau egunerokotasun hori? Zertan? Zelan emoten dozu denporea? Zaletasun barriren bat deskubridu dozu itxialdian?**

Egia esan, nire egunerokotasuna ez da askorik aldatu; lanean jarraitu behar izan dot eta kasu honetan modu positiboan eragin deusta.

Kirol arloari jagokonez lesino bat pasetan nabil eta egoera honetan errehabilitazioak luzerako joko dau. Beraz entrenetako denporea normalean familiari kentzean deusat eta egun honetan balantzeari buelta apur bat emoten nabil. Astegoienetan normalean herririk herri ibiltzen naz eta oin etxean gagozanez,

afizinoentzako denporea, batez be astegoienetan atera dot.

**Aurrera begira, zeintzuk dira zure planak, proiektuak eta ilusinoak? Epe laburrean zein luzean?**

Epe laburrean lesinoa osatutea

"Sasoi baten, 1959an,

Latasa eta Luxiak,

Donostiako zezen

plazan jokaturako

apustu mitikoan, 18.000

sarrera inguru saldu

ziran eta kanpoan

jentea geratu zan"

ahalik eta azkarren, eta ahalik eta ondoen. Hile batzuk daroadaz azkorea esku tartean hartu barik eta luze egiten dabil. Beraz ea aurten denporaldi amaierarako behintzat, ondo ipinten nizan. Hamar urte barru be azkoran eta herri kirolaren inguruan ikusten dot neure burua. Agian ez hain aktibo, baina Arratian badakit zaletasuna badagoala, eta herri kirol eskola moduko bat egitea polita izango litzateke.

**Azkoreaz aparte, beste kirolik gustetan jatzu? Praktiketarako dozu?**

Kirola orokorrean gustetan jata, ez dago gustuko ez dodan kirolik, ikusteko edo praktiketako. Kontua da kirol baten maila gorenean zagozanean gomendagarriena kirol horretan ibiltea dala, beste kirol batzuk praktiketara ez dala onuragarria. Eta hori pasetan jata niri!

**Azkoreak ze garrantzia dauka zure bizitzan?**

Azkoreak garrantzia handia euki dau, dauka eta eukingo dau nire bizitzan. Ez deusta biziteko beste emon, baina bizia emon deusta; eta horrek be asko balio dau.

Badakigu kirol minoritario bat dana. Baina sasoi baten, 1959an, Latasa eta Luxiak, Donostiako zezen plazan jokaturako apustu mitikoan, 18.000 sarrera inguru saldu ziran eta kanpoan jentea geratu zan.

Goitik behera egin dau 60 urtean...

**Ze etorkizun ikusten deutzazu azkoreari?**

Argi dago edozer arlotako gauza bateri balioa emoteko norberak praktikau beharra dagoala. Sasoi baten azkorea baserri eta herri guztietan praktiketara zan eta hortik etorten ziran zaletasunak eta azkolari onenakazko miresmena.

Gaur egun, ez dago non praktikau, kirol garestia da, folklore moduan ikusten dau jenteak, ez kirol moduan... eta hor dago galera nagusia.

Herri kirol gimnasioak edo taldeak sortu eta gazte jentearen artean modan ipiniko balira, baleteke barru be kirolari onenak egiten dabenak balioa izatea. Eta gure plazetako ikusleen adinak behera egingo leuke.

## PELOTEA

# Dimako Jaietako Pelota Txapelketea bertan behera geratu da

Dimako jaiak atzeratu

ditu Dimako Jai

Batzordeak eta


Txumuluxueta Pelota

Elkartek Dimeko

Jaietako Pelota

Txapelketea bertan

behera ixtea ebatzi dau.



## Erredakzioa

Finala bagilaren 26an jokatzekoa zan, baina konfinamentua luzatu eta jaiak atzeratu egin dira.

Txumuluxuetakoen asmoa, konfinamentua amaitu bezain laster partiduak jokaturen hastea zan. Multzoetako partiduak bagilearen 14rako amaituta egon behar ziran, bagilearen 19an finalaurrekoak jokatu, eta Dimako jaietako barikuan, bagilak 26, finala jokatu ahal izateko.

Aprilaren 16an, COVID-19aren ondoriozko osasun egoera dala eta Dimako Jai Batzordeak jaiak atzeratzea ebatzi eban, jente pilaketak ekiditeko asmoz eta Txumuluxueta Pelota Elkartek txapelketea bertan behera ixtea ebatzi dau. "Fetxa barriak egon ezker, pentsauko dogu zer egin" azaldu deutso Ekhi Ziarrusta Txumuluxuetakoak BEGITURI.



**Etxealditik  
EUSKARALDIRA**

Ohitura aldaketa etxetik hasten da

@euskaraldia  
 @belarripest / @ahobizi  
 [www.euskaraldia.eus/etxealdia](http://www.euskaraldia.eus/etxealdia)

**ALKIZABAL**  
ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
[alkizabal@alkizabal.net](mailto:alkizabal@alkizabal.net)

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

Basoak garbitzeko makineria

**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**  
ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

**Gure**  
ikastetxeak  
Euskalduna  
kalidadezkoa  
herrikoa

Orabaiu Urri Ikastetxea

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

2 urtebiu 18ra



MUSIKEA

# Maria Rivero: "Gurako neuke nire musikeak parentesi musikal bat eskaintzea egoera berezi honetan"

Maria Rivero musikaria, Balmasedan jaio zan eta egun Zeberion bizi da. Proiektu desbardinetan egon ostean, bere hamabigarren diskoa, bakarkako lehenengo disko luzea, aurkeztu dau, *Parentesiak* izenpean.

## Erredakzioa

### Martiaren amaieran disko barri bat atera dozu *Parentesiak* izenekoa. Zelango da disko hori?

Diskoa parentesi artean agertu ohi jakun testua langoa da: zerbaisten osotasuna ulertzeko balio dauana. *Parentesiak* ez dabe sekula testu nagusia osotuten, baina, parentesi artean azaltzen dana irakurri barik gatxa izango da testuaren osotasuna ulertu ahal izatea. Holan ikusten dot osotasunean sortu dodan lana. Izan be, *Parentesiak* entzutea bada nire esentziara gerturaztea, eta horregaitik nire ibilbidea apur bat gehiago ulertzea.

Erraiak astindu dodaz diskoa osotuten daben zazpi abestiak eta *bonus track*a idatzi eta konposatzeko.

*Parentesiak* diskoak erregistro aldaketea dakar; ahotsak inoz baino garrantzi handiagoa hartu dau, eta osotasunean esango neuke estilo personal eta barria lortu dodala, bide barri baten hasikera moduan ikusten dot nik, edo hala espero dot behintzat.

### Grabaketea noztik noz arte egin zenduan? Non erosi daiteke?

Diskoa Bilboko TAOM estudioetan ekoitzi eta grabau dot Jagoba Ormaetxearen gidaritzapean. Hilabete asko alkarlanean emon doguz, igazko bagilean sartu nintzan estudioan eta aurtengo urtaillean amaitu genduzan grabaketa eta ekoizpen lanak.

Jagobak nire abestiak mimoz eta talentuz janzen jakin izan ditu. Oso pozik nago emaitzagaz eta, batez be, egindako lanagaz; uste dot estilo personaleko disko bat sortzea lortu dogula, eta horregaz oso eroso sentiduten naz. Diskoan hainbat lagunak kolaborazioak bildu dodaz; besteak beste, Miguel de la Rosa musikari Kubatarra, Zuriñe Hidalgo eta Iker Lauroba musikariak.

Plataforma digital guztietan entzuteko prest dago, formatu fisikoan be eskuragarri dago [www.mariarivero.eus](http://www.mariarivero.eus) webgunean.



### Hau zenbatgarren diskoa dozu? Kontau zure ibilbidea musikan.

Hau nire ibilbidearen hamabigarren diskoa da. Lehenengo diskoa Apurka taldeagaz grabau neban, geroxeago Siroka taldeagaz hasi nintzan eta gaur egun oindino be jarraitzen dogu, aurten gure hamaikagarren urteurrena dalarik. Taldeagaz bost disko argitaratu dodaz guztira. Hutsa bikote akustikoa-gaz beste bost disko argitaratu dodaz. Hutsari igazko aprilean agur esan geuntsan zazpi urteko ibilbide oparoaren ostean. Bakarkako bideari ekin neutsan 2017an Mark Jordan ekoizle katalanagaz EP bat argitaratu eta oingo honetan nire lehenengo

lan luzea aurkezten deusuet, *Parentesiak*.

### COVID-19a ez hedatzeko hartutako neurriak ezin izango dozu, momentuz behintzat aurkezpen kontzerturik egin. Dana dala, hau amaitutakoan kontzertuak egiteko asmorik? Zeberion?

Momentuz aurreikusita geunkan aurkezpen bira bertan behera geratu da zoritxarrez. Aprilaren 9an birari hasikerea emon behar geuntsan Bilbon, baina ezin izan da holan izan. Espero dot aurrerago nire lana zuzenean aurkezteko aukerea izatea, jakina, baina momentuz itzarotea toketan jaku.

Espero dot nire musika ahalik eta herri gehienetara eroateko

aukerea izatea!

### Zeintzuk dira zure erreferenteak musikan? Ze musika klase gustetan jatzu entzutea?

Inoz ez naz oso mitomanoa izan; egia esan eta nire erreferenteak aldatzen joan dira urteetan. Euskal Herrian sortzean dan musikeari oso adi egoten saiatzen naz eta batez be androk sortzean dogun horri, baina nire *playlist*-a oso-osoa anitza dala esango neuke. Atzen aste honetan adibidez kantautoreen munduan guztiz murgildua nago, musika lasaia lehenetsi egiten dot.

### Zein izaten da zure egunerokotasuna eta zelan eragin deus COVID-19ak?

Nire kasuan nire bizitza guztiz aldatu da, normalean handik hona emoten dot eguna, lanera, ensaioetara, "kedadak" eta abar.

Oin etxean egotea toketan da eta nire kasuan telelana kenduta (ordutegi finko bat eta monotonía moduko bat daukadala), saiatzen naz nire gorputza eta animoi kasu egiten. Badagoz egun batzuk sortzean emoten dodazanak, beste batzuk sukaldatzen eta beste batzuk aldiz sofán botata emoten dot eguna... Saiatzen naz lasai hartzean tokau jakun pelikula txar hau.

### Aurrera begirako planik edo proiekturik badaukazu?

Egoera honek zeozer irakatsi badeusku, izan da epe luzera plan askorik ez egiten, beraz, gaur eta oin gurako neuken bakarra da nire musika ahalik eta etxe gehienetara heltzea eta parentesi musikal bat eskaintzea egoera berezi honetan.



EUSKERA

## Euskerazko liburu digitalak debalde *Booktegi.eus* helbidean



## Erredakzioa

Konfinamentu sasoian, irakurtea askorentzat oinarritzko premina izanda, liburuak eskuratzea gatxago egiten da. *Booktegi.eus* liburutegi digitalean liburuak, audioliburuak, literatura solasaldiak eta alkarrizketak debalde deskargatu daitezke. Gainera, lan literarioak be argitaratu daitezke modu digitalean ezer pagau barik.

Euskeraz irakurteko zaletasuna bultzatzeko helburuagaz sortu zan. Liburu aukera handia dago: euskal literatura klasiko eta modernoa, itzulpenak eta gazte literatura, besteak beste.

Titulu batzuk Booktegiaren bakarrik topatu daitezke. Izan be, liburutegi digitaletan dagozan liburuak lehenago paperean argitaratutakoak izaten dira. Hemen barriz, badagoz inoz paperean argitaratu ez diran lanak.

### Argitaratzeko baldintzak

Berez, edozein motatako liburuak argitaratu daitezke *booktegi.eus*-en, euskeraz idatzita badagoz, eta kalidade erispideak bete ezker. Liburu Word-en bialdu behar da eta Booktegi formatu honeetan argitaratuko dau: MOBI, iPub eta PDF. Booktegi logotipoa eta e-posta ipiniko dabe liburuan.

Liburu bakotzak bere azala izan behar dau, eta, azalean, liburuaren izenburua eta egilearen izena agertu behar dira. Liburuaren laburpen bat, hiruzpalau esaldikoa, eta egileari buruzko informazioa be bialdu behar dira.

Egokitasunari jagokonean, liburutegi digitalak berak erabakiko dau liburu plazaartzeko egokia dan ala ez.





## UEUko Irakasletza masterra online egin ahal izango da urrietatik aurrera

Erredakzioa

Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko behar dan master ofiziala da eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), EHUko unibersidadeagaz egindako akordio bateri esker, emongo dau masterra euskeraz eta online 2020-2021 ikasturtean. Aurrematrikula epea zabalik dago maiatzaren 25era arte.

Master honek DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasle eta hizkuntzen irakasle izango diranak prestatzea dauka helburu. Hiru espezialidade eskaintzen dira; Natur Zientziak eta Matematika, Giza eta Gizarte Zientziak eta Hizkuntza eta Literatura, hain zuzen be. Guztira,



120 plaza dagoz.

Ikasturte bateko masterra da eta internet bidez izango da ikaskuntzearen ardatza. Horrez gainera, praktikak egin behar ditue ikasleak institutueta. UEU ez da unibersidade publikoa eta masterraren gitxi gorabeherako prezioa 3.780 eurokoa da.



## Koronabirusaren oinarrizko hiztegia atera dau Euskaltzaindiak

Erredakzioa

Hiztegitxoak UZEIgaz lankidetzan egin dau, hedabideai lagunduteko. Izan be, COVID-19aren inguruko albisteetan, berba bari ugari erabili behar dabaz informatzaileak. Hiztegian, gehien

erabili behar diranak jasoten dira.

Euskaltzaindiaren Hiztegia, Euskalterm, terminologia banku publikoa eta hedabide orokor eta espezializaduetan erabilitako berbak hartu dira kontuan, oinarrizko lexiko hau egiteko.



## Egunean behin, galdera-erantzunen joko arrakastatsua Arratian be

Aplikazio honek, egunean behin partida bat jokatzeko aukerea emoten dau. Hamar galdera erantzun behar dira ahalik eta azkarren. Laugarren denporaldian, hau da, aprilaren 27tik garagarriera, Lemoan, Igorren eta Diman taldeak egin guran dabiz aplikazioagaz taldeka jokatuteko.



Martxan da laugarren denporaldia.

Erredakzioa

Aplikazioak aukerea emoten dau taldeak egiteko. Hau da,

sailkapen orokorrean ez ezik, partidak familiakoak edo lagunak konpartiduteko aukerea be badago. Talde barruan

sariak ipini daitezke. Holan, Dimako Abizariak eta Igorre eta Lemoako Udalak, denporaldiko lehenengo hirurentzat sariak emongo ditue. Lemoan herriko establezimentuetan erabilteko bonoak jasoko dabaz sarizat lehenengo hirurak.

Galderak

Galderak jentek bialdutakoak edo automatikoki sortutakoak izan daitezke, beti desbardinak baina antzeko zailtasun maila daukienak. Adibidez: "Ze herrikokoa da argazki hau? Zelan esaten da limoia iparraldean? Zenbat biztanle ditu Zornotzak? Non jaio zan Loli Astoreka euskal aktorea? Zein da argazkiko euskal pelotaria? Munduko ze herrialdeetan dago aterata beste argazki hau? Egingo zeunke matematikako eragiketa hau? Ze artistarena da goiko koadroa?...". Galderak erantzuteko gainera hiru aukera posible emoten dabaz.

Zelan jokatu

Android eta iPhone telefono mobikorrean deskargau daitezke Egunean behin aplikazioa. Ondoren, norberaren taldean edo herriko taldean be sartzeako aukerea dago. Herri bakotzak kako bat emoten dau horretarako (14. orrialdeko agendan dagoz). Eta denporaldi amaieran sariak egongo dira.

## DUNBA

### Aldaketa klimatikoa ikertzen

Arteko eskolako ikasleak

Arteko 3. zikloko ikasleok, aldaketa klimatikoa ikertzen gagoz zemendiatik hasita, arazo honek zuzenean eragiten deuskulako eta asko arduratzen gaitualako. Horregaitik ebatzi genduan hau iker-tzea, jakin gura gendualako zer egin geinkean honen inguruan.

Klima aldatzen baldin bada, hau da, tenperatura igoten bada, poloetako izotza urtuko da, landaredi eta animalia ugari desagertuko dira eta muturreko eguraldia jasango dogu (uriolak, lehorteak,

haize boladak...).

Honek ondorioak ekarriko deuskuz, itsasoko izaki bizidun txikiak desagertu ezker, oxigeno gitxiago izango dogu eta bardina gertatzen da zugatzak moztzen jarraituten badogu. Poloetako izotzak urtzen badira, ur maila igoko da eta itsasoaren mailan bizi diran gizakiak euren bizilekueetatik migradu beharko dabe edo bestela beste kontenzino neurri batzuk sortuko ditue natureari aurre egiteko.

Aldaketa honek, gizakiak eragin ditue, planetea kutsatzen dogu gure industria eta konsumoagaz. Konsumoaren barruan, ezin dogu ahaztu, plastikoaren erabilera bakarrek konsumoa zein handia dan.

Gauza batzuk ordea, aldatuz doaz, neurri batzuk hartu diralako, adibidez, izaki bizidunontzat horren garrantzitsua dan ozono geruza apurtzen dauan KFK-k murritu dira, baina ez da nahikoa.

Trafikoa barriz, elektrikora bideratua dago baina oindino be gure energia iturri handiena erregai fosiletatik, petrolotik batik bat abiatuta lortzean dogu.

Energia barriztagarriak, ez dabe ez hondakin ez gas kutsakorrik botaten atmosferara, berotegi efektua ekidituz. Baina honetan oindino ez da asko sakondu.

Atzen hilean, berba gitxi egin da albisteetan klima aldaketaz, koronabirusak jarduera guztiak

bertan behera itxi ditue-eta, baina ikerketak dinoe, NO2 kutsatzailea nabarmen jeitsi dala, batez be trafikokoaren jarduera jeitsi dalako.

Gizartea gelditu da eta honek natureari mesedea egin deutso, honek zer hausnartu dakarku. Hata guzti be, guztia normaltasunera bueltetean, naturarengan izan dauan eragin positiboa lehengora bueltauko da, Txinan gertatzen dabilan legez. Gobernuak ebatziak hartu behar ditue osasun krisi eta



krisi klimatiko honetatik urteteko.

Gure aldetik, Artean zugatzak landatuko doguz, honek CO2 gasa hartu eta hostoetan gordetzen daualako. Errekak garbituko doguz, munduan dagoan ur guztiaren %1a baino gitxiago dalako erabilgarria eta hau babestu behar dogulako eta amaitzeko, etxetara esku-orriak bialduko doguz konsumoa zelan jeitsi eta energia aurrezteko aholkuak emoteko.

Lurra da gure etxea, konzientzia hartu daigun eta guztion artean zaindu daigun, ez daukagu beste etxerik eta.



## AGENDEA

MAIATZAK 2  
ARRATIA

BEGITUK antolatutako Etxean Hobeto Argazki Lehiaketea martxan. Argazkiak, bost gehienez, alarma egoera amaitu arte bialdu [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Momentuaz gozaten gehien lagunduten dauan argazkiak saria izango dau: Garena jatetxean persona birezako dastatze menua.

Gernikako KZguneko 94 403 33 58 telefonora deituta, edozein zalantza argitu edo zeozer konsultau daiteke.

eLiburutegia erabilteko [liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus](mailto:liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus) helbidean sarbide kakoa emongo deusie eskatzen dauanari egoera normalizatu arte. eLiburutegian persona bakotzak hilean lau liburu irakurteko eta astero film bi ikusteko aukerea dauka. Maileguan hartu daitezke liburuak, eskaera posta elektronikoz eginda [liburutegia@bedia.biz](mailto:liburutegia@bedia.biz) helbidean (Bedian).

Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolak antolatuta, *Andrak mendian autonomia lantzen II* ikastaroaren parte teorikoa online. Laura Ruiz eta Garazi Santos-en eskutik. Maiatzaren 5era arte, emon daiteke izena 94 631 17 17 edo 688 627 393 telefonoetan edo [berdintasuna2.ariatia@bizkaia.org](mailto:berdintasuna2.ariatia@bizkaia.org) helbidean. Materiala maiatzaren 9tik aurrera online egongo da.

## AREATZA

Udal zerbitzua erosketak etxez etxe banatzeko. Udaletxera (646 567 836)

09:00-13:00 artean deitu behar da, eta herriko dendetan egin gura diran erosketak azaldu. Eskatutakoa hurrengo egunean jasoko da etxean, goizean zehar. Zerbitzua dobakoa da eta erosketok denda bakotxean ordaindu behar dira, aurrerago. Arrisku taldeko personai zuzendutako zerbitzua da.

## BEDIA

Itxialdi egoereak eragindako sentimentu eta emozinoak partekatzeke lan artistikoak (kontakizunak, gutunak, marrazkiak...) bialdu daitezke [liburutegia@bedia.biz](mailto:liburutegia@bedia.biz) helbidera. Itxialdia amaitutakoan, lanokaz erakusketea antolatuko da.

Ludotekeak astelehenero etxean egiteko lau ekintza proposatzen ditu [www.bedia.biz](http://www.bedia.biz) webgunean: jolasa, eskulana eta sukaldaritza errezeta bi, bata umeakaz egiteko eta bestea nagusientzat. Jardueren argazkiak [ludotekabedia@gmail.com](mailto:ludotekabedia@gmail.com) helbidera bialdu.

## DIMA

Garagarrilera arte, Egunean behin lehiaketan parte hartzeako aukerea. Deskargau Egunean behin aplikazioa; sartu Dimoztarrok eurt! euskerara taldean. Kakoa: D645B6. Esteka: <https://eguneanbehin.app.link/1EmVyi1w05>. Denporaldia amaitutakoan saria egongo da lehenengo hirurentzat. Parte hartzeako Diman errolatuta egon behar da. Abizariak antolatuta.

Udalak herritarren zaintza bermatzeko herritar sarea osotu dau adineko zein patologia desbardinak daukiezan personai erantzuteko. Laguntzeko prest bazagoz edo laguntzea behar badozu deitu 94 631 57 25 telefonora 09:00etatik

13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Ordutegi horretatik kanpo 665 710 637 telefonora erabili.

## IGORRE

Maiatzaren 2ra arte, Igorreko Kiñu Gaztetxeak antolatuta, Marrazki Lehiaketea. "Utopia" berbea abiapuntutzat hartuta. Aukeratutako marrazkiakaz murala egingo da. Marrazkia eta egilearen izen-abizenak: [eizukinu@gmail.com](mailto:eizukinu@gmail.com) helbidera bialdu.

Garagarrilera arte, Egunean behin lehiaketan parte hartzeako aukerea. Deskargau Egunean behin aplikazioa; sartu Igorreko herria taldean. Kakoa: FA6C33. Esteka: <https://eguneanbehin.app.link/qraqsd1GKY5>. Denporaldia amaitutakoan saria egongo da lehenengo hirurentzat. Parte hartzeako Igorren errolatuta egon behar da.

Egoera zaurgarrian dagozan herritarrek laguntzeko sarea osotu dabe Igorreko Gaztetxeak, kuadrillak eta Udalak. Sarean boluntario beharretan parte hartu gura izan ezker idatzi [auzolana.igorre@gmail.com](mailto:auzolana.igorre@gmail.com) helbide elektronikora. Laguntzea behar izan ezker deitu 655 363 026 telefonora.

Herriko Tabernen auziaren harira #HerrikoakHerriarenak dinamikea martxan maiatzaren 10era bitartean. "Zer da zutzako herrikoa?" itaunagaz Herriko Tabernen kontrako eraso salatu gura da, horretarako, sare sozialetan #AxularHerriarena traola erabilia argazki eta esaldi bat igoteko eskatzen dabe edo [axularke@gmail.com](mailto:axularke@gmail.com) helbidera bialdu. Argazki guzti horreek batu eta mural bat egingo dabe aurrerago.



## LEMOA

Arantzeko jaiak. Zapia balkoira atera. 12:00etan, txupinazoa; 12:00etatik 14:00etara, DJ Tiesto; ondoren bazkaria eta briska partidea etxean; 19:00etatik 19:30era, Tortilla Lehiaketea, tortillearen argazkia [goraarantzekojaiek@gmail.com](mailto:goraarantzekojaiek@gmail.com) era bialdu; 19:30etik 20:30era, DJ Tiesto. Eguneko paseoa Arantxera hurreratu ezker, argazkia atera eta esandako helbide elektronikora bialdu daitezke.

Garagarrilera arte, Egunean behin lehiaketan parte hartzeako aukerea. Deskargau Egunean behin aplikazioa; sartu Lemoako herria taldean. Kakoa: 204F9E. Esteka: <https://eguneanbehin.app.link/1KH1d9SW5>. Denporaldia amaitutakoan saria egongo da lehenengo hirurentzat. Parte hartzeako Lemoan errolatuta egon behar da.

Udal laguntza zerbitzua. Adineko personak, erosketak edo farmaziako gauzak behar badabez deitu udaletxera

94 631 30 05 telefonora. Udaleko langileak emongo dabe zerbitzu hori saltokietara edo farmaziara joanda eta beharrezko produktuak etxera eroanda.

Eguaztenetan, 10:00etatik 14:00etara, Udalak Oingabiz: ariketa fisikoa eta bizi osasungarria sustatzeko programea eskaintzen jarraituten dau modu telematikoa. Hitzordua, WhatsApp bidez hartu behar da 678 064 892 zenbakian.

## ZEANURI

Udal zerbitzua nagusiak etxean geldituteko. Medikuaerenera joan beharra, errekaduak edo farmaziako zeozer behar izan ezker deitu 94 673 91 46 edo 688 682 277 telefonora eta behar dana etxera eroango dabe.

## ZEBERIO

Adindun edo etxetik atera ezin diranai laguntzea emoteko, Zeberio Solidario taldean boluntario izateko, zein laguntzea eskatzeko, 688 817 309 telefonora deitu edo [zeberiosolidario@gmail.com](mailto:zeberiosolidario@gmail.com) era idatzi.

MAIATZAK 3  
ARRATIA

13:00etan, euskera praktiketako Euskal Herriko topaketa birtuala Jitsi aplikazioagaz. Partaideak maiatzaren 2an jasoko dabe postaz gelaren helbidea.

MAIATZAK 10  
IGORRE

"Aburrimenduentzat botikarik onena: euskera!". Konbidau euskera zure balkoira. 13:00etan, balkoiak banderolakaz adornau, atera soinu tresna eta bertan jo. Paseoa joan ezker Euskeraz bizi gura dot lelodun kamiseteta jantzita eroan.

begitxio

<http://www.begitu.org>

## irudi edo argazkiak be begitxio atalean

Espazio honen helburua etxetik urten ezin dan honetan jenteari adorea manteniduten lagundutea da eta persona konketu bateri, talde bateri edo irakurle guztiak zuzendutako mezu animosoak jasoko doguz bertan.

Bialtzaile bakotzak 250 karaktere inguruko gura beste mezu bialdu leikez [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Mezuak irudi edo argazki bategaz be lagundu ahal dira gura izan ezker.

## bertsoak

1  
Gezurretazko oskol gainean  
bizi ginen nahiko lasai  
baina birusa heldu zitzaigun  
azaleko herrira, ai!!  
Kaltegarria ez zen lagunak,  
kalteak egiten darrai  
orain gerlari gara guztiok  
ez dakit nor dugun etsai  
normaltasuna lehengoa bada  
ez dut hara itzuli nahi.

2  
Gezur batean irribarretsu  
gu bizi ginen gustura  
zer gertatzen zen etorkinekin  
ez genuen jakin gura  
Txinako gaixo ta miseriak  
ez zitzaizkigun ardura  
egun batetik bestera dena  
amesgaizto bihurtu da  
kristalezkoa zelako gure  
hormigoizko mundu hura.

3  
Eskertzeoko erizainaren  
etenbako ahaleginak  
garbiketako langilearen  
beharrezko erratz finak  
benetakoak egin dituzte  
gezurrezko eraikinak  
guraizaren hormak ez dira  
goxoak eta urdinak  
haien zuloak gero estaltzen  
beti gabiltza berdinar.

4  
Aitita hil da bakar bakarrik  
amama gaixo atzera  
umea dabil etxe barruan  
zorutzen erdi artega  
herri honetan diru gosedun  
asko dabil estrategia  
ekonomia heriotzaren  
gainetik zelan ote da?  
Birusa zabal zabalik bada  
gu zertan goaz lanera?

5  
Internet barik bakar bakarrik  
leku askotan umeak  
etxe ugari dauzkagu eta  
txikiak bezain xumeak  
lehengo gaixoak bizirik daude  
ez gara ez inmuneak  
lau horma ilun artean erail  
dituzte emakumeak  
etxe guztiak ez direlako  
maitasunaren guneak.

6  
Herri ilun bat ikus dezaket  
jantzita iraganean  
gaixotasunak sartu sartuta  
zituelako barnean  
korapilo hau askatuko da,  
badakigu azkenean  
esperantzaren bihurtunetan  
jarrai dezagun lanean  
mundu hobea eraikitzeko  
birusa joaten denean.

Ibon Iza



# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU SALGAI

Sueteko beheko parterako egurrezko armairua eta estalgia, labea eta bitroagaz, merke saltzean dodaz. Txoko baterako aproposak. Deitu 657 777 542 zenbakira.

### TREKKING BIZIKLETEA SALGAI

Kreidler (RT Raise) markakoa, taila handikoa, barri-barria; zikloturismoa egiteko beren-beregikoa. Prezio onean. Otzarea eta atzeko boltsak oparizat. Interesdunak deitu 685 711 598 telefonora.

### DANERIK ETXEA ALOKAIRUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazino onean. Hilean 700 euroren truke. Kontakutuz zenbakia: 666 125 725. **PARTZELEA ESKAINTZEN DOT** Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzela bat eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087

495 telefonora.

### ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabilz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezkerro, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

### KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

### JENTE BILA

Zaparrada Batukada Taldeko kide izan gura dozu? Animau! Zure zain gagoz! Ipini gugaz hartu-emonetan, [zaparradabatukada@gmail.com](mailto:zaparradabatukada@gmail.com) emailen, Instagramen [@zaparrada\\_batukada](https://www.instagram.com/zaparrada_batukada) helbidean edo [@zaparrada](https://www.facebook.com/zaparrada_batukada) helbidean Facebook-en.

**Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Udalak emondako *Fasioren mendea* CD-liburu bana.

**begitu**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.



94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean medu  
**sem**  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [semedu@hotmail.com](mailto:semedu@hotmail.com)

*Kepa Intxausti*  
TAXI ZERRITZUA  
609421222  
IGORRE

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
[zekutejatzetxe@hotmail.com](mailto:zekutejatzetxe@hotmail.com)

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**begitu**

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-49-54

*Pinturas Aratia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizarra egin eta bukunduten dogu.  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



**begitu**  
ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be **Begitu-laguna!**

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

338

**begitu** 18

Leire Aloria Sengalen izandako ospian ubiheratzen ari zela

Alex Trikon liburu eta dokumentalak prestatzen dago

Dimako laietako Txapelketa antolatzen hasiak dira

**BEGITUK hamazortzi urte bete ditu**

Nagusi egun da orain eta sarbia presentzia indartsu gura da.

H

Orain hiruak behere egia eta baina etxerako lurre izan ditake

Orainak bein-behineko sailak ezker

**begitu**

Publizitatea:  
649 979 115

**begitu**

94 631 73 14  
eta  
649 979 112

## ERROTA Arratiako garapen sozioekonomikorako Fundazioa langile baten bila dabil

### Zer eskatzen da?

- Enpresagintza arloko ikasketak izatea.
- Euskera jakitea eta lan hizkuntza izatea.
- Arratiakoa izatea edo eskualdea ondo ezetutea.
- Tresna informatikoak menderatzea.
- Aholkularitzan edo antzeko lanetan esperientzia izatea.
- Aurrez aurreko arreta eta personakazko tratuan esperientzia balorauko da.
- Enpatia, proaktibitatea eta aldaketetara egokitzeko erraztasuna bezalako zeharkako gaitasunak kontuan hartuko dira.

### Zer eskaintzen da?

- Eskualdeko proiektu erakargarri baten parte izatea.
- Gitxienez urte beteko kontratua.

ERROTAren parte izan gura badozu, bialdu zure curriculuma [info@errotta.eus](mailto:info@errotta.eus) helbidera maiatzaren 15a baino lehenago.



Arantzazu



Arratiako Udala  
Ayuntamiento de Arratia



Arteako Udala



Bedia



DIMA



IGORRE  
Herriaren zerbitzua



LEMOA UDALA



ZEANI ZURI